

2008-06-03ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko ekainaren hiruan, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna, Agustin Zubeldia Iraola jauna eta M. Jesus Otaño Zumeta andreak.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute:, Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaidekopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (08/04/10).

2008ko apirilaren hamarreko ezohizko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2008-04-02ko 36/08 Dekretua: otsailari dagozkion fakturak onartzea, 36.880,44.-€ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2008-04-02ko 37/08 Dekretua: Trainelec SL-ek teiltuan plataforma bat jartzeko egindako baimen eskaera onartzea.

-2008-04-03ko 38/08 Dekretua: Ramon Arruabarrena Gonzalezek egindako eskaera bere ibilgailuen pasaera neurriaren egiaztapena egiteko ez onartu eta bere horretan uztea.

-2008-04-08ko 39/08 Dekretua: Arturo Gonzalez Olaortuak egindako obra baimen eskaera hainbat baldintzekin onartzea.

-2008-04-08ko 40/08 Dekretua: Naturgas Energiak aurkeztu duen fakturazioaren arabera, udal jabari publikoaren erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa ordainaraztea.

-2008-04-15eko 41/08 Dekretua: 66 – E espedientearen eskaera ibilgailua ezinduen aparkalekuan uzteko txartela eskatuz onartzea.

-2008-04-08ko 42/08 Dekretua: Telefonica-k aurkeztu duen fakturazioaren arabera udal jabari publikoaren erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa ordainaraztea.

-2008-04-10eko 43/08 Dekretua: Jose Ramon Goikoetxea Araolazari, familia ugariei dagokien ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuotaren %50eko hobaria ematea.

-2008-04-08ko 44/08 Dekretua: M^a Luisa Godoy Caballerori elbarritasunagatik salbuespena ematea trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergan.

-2008-04-08ko 45/08 Dekretua: Idra Nordicos SL-ri jarduera instalatzeko baimena ematea zenbait neurri zuzentzaileekin.

-2008-04-09ko 46/08 Dekretua: Olivia Sanchez eta J.L. Longaronek emandako ikastaroari dagozkien fakturak ordaintzea.

-2008-04-09ko 47/08 Dekretua: Cesar Fernandezek EuskalForging SA enpresaren izenean egindako eraikuntza baimen eskaera ez onartzea.

-2008-04-11ko 48/08 Dekretua: Jokin Iraolak Kikilau SL enpresaren izenean egindako eraikuntza baimen eskaera onartzea.

-2008-04-16ko 49/08 Dekretua: Andoni Olano eta Amaia Herizen babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko lehenespenez eskuratzeko eskubideari uko egin eta ez egikarrituko ez dela deklaraztea.

-2008-04-16ko 50/08 Dekretua: Ikastaroetan jubilatuei eman beharreko hobaria Maria Teresa Martin De la Torreri ematea.

-2008-04-16ko 51/08 Dekretua: Enplegu sustapeneko dirulaguntza eskaeraren barruan Gizarte Dinamizaziorako proiektua onartzea.

-2008-04-18ko 52/08 Dekretua: Gruas y Volquetes Iruri eskatzea bere jarduera aurrera eramaten duen gunea garbitu eta txukun jar dezala.

-2008-04-22ko 53/08 Dekretua: Naturgas Energiak aurkeztu duen fakturazioaren arabera, udal jabari publikoaren erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa ordainaraztea.

-2008-04-22ko 54/08 Dekretua: Anoetako udalari igortzea, Anoeta eta Irurako udalen artean antolatzen den kaldereroen jaiari dagokion faktura.

-2008-04-22ko 55/08 Dekretua: 131, 113 eta 135 E-ei dagokien gizarte larrialdietak laguntza ematea onartzea.

-2008-04-22ko 56/08 Dekretua: martxoari dagozkion fakturak onartzea, 40.380,78.- €ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2008-04-22ko 57/08 Dekretua: Aurelio Campo Iglesiase Euskaltel enpresaren izenean egindako obra baimen eskaera ez onartzea.

-2008-04-25eko 58/08 Dekretua: Ramon Arruabarrena Gonzalezek egindako obra baimena ez onartzea berari egokitutako ibi edo pasabidea aldatzeko.

-2008-04-28ko 59/08 Dekretua: Vitoriano Iturbek egindako obra baimen eskaera onartzea erakusketarako etxe mugikorra jartzeko.

-2008-04-28ko 60/08 Dekretua: Jorge Etxaide Gonzalezek egindako obra eskaera etxeko balkoia ixteko ez onartzea.

-2008-04-28ko 61/08 Dekretua: Endesa Energiak aurkeztu duen fakturazioaren arabera, udal jabari publikoaren erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa ordainaraztea.

-2008-05-05ko 62/08 Dekretua: Luciano Lasa Balerdik irurako baserritarren izenean egindako dirulaguntza eskaera onartzea nekazarien zaindaria den San Isidroren omenezko eguna ospatzeko.

-2008-05-06ko 63/08 Dekretua: Udal frontoia harmaila teleskopikoez hornitzeko kontratua Mondo iberica SA-ri esleitzea.

-2008-05-07ko 64/08 Dekretua: Irurako udal frontoiaren ingurua berurbanizatzeko proiektua idatzi eta lan hauen obra zuzendaritza, Asmatu SL-ri

esleitzea.

-2008-05-08ko 65/08 Dekretua: Irurako Larriturriko lur eremua eta honek mugakidea duen udal jabetzako sailaren arteko jasoera takimetricoa, mugaketa eta taketak sartzeko lanak, Mugarri Topografia SL-ri esleitzea.

-2008-05-16ko 66/08 Dekretua: M^a Luisa Godoy Caballerok egindako eskaera, ibilgailuen zerga 2008 urtetik aurrera ordaintzetik salbuetsita egoteko, ez onartzea.

-2008-05-21eko 67/08 Dekretua: Zu eta Biok Scoop-ek etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko jarritako abala itzultzea.

-2008-05-21eko 69/08 Dekretua: Udaleko langileen ordezkariak egindako eskaera onartuz Santa Rita eguneko ospakizuna egiteko eta dirulaguntza emanaz.

-2008-05-22ko 70/08 Dekretua: Unai Arretxek Iglesia Evangelikaren izenean egindako diru laguntza eskera ez onartzea.

-2008-05-23ko 71/08 Dekretua: Euskal Forging SA-k aurkeztutako xehetasunezko azterketaren behin betiko izaera berrestea, ezarritako baldintzak bete dituela ziurtatu ondoren.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, 2009RAKO IRURAKO JAIEGUN

OFIZIALAREN IZENDAPENA.

Apirilaren 22ko 70/2008 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2009 urteko jaiegunen egutegia onartu zen. Dekretuaren 2.3. artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretua argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean egin behar dute tokian tokiko jaiegunen proposamena udalek, eta beren lurralde ordezkarietara bidali.

Aipatutako egutegia egiteko premia dela eta, tokian tokiko jai bati buruz proposamena jakinaraztea eskatzen du Euskal Gobernuak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, hilaren eguna eta jaiegunaren izen zehatza aipatuz, jaiegun hori

Irurako udalerri osoan indarrean egon dadin.

Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Irailak 29a, San Migel eguna izendatzen du, herriko ohiko jaia eta zaindariaren eguna.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

LAUGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO TOLOMENDI ELKARTEARI DAGOKION
EKARPENA EGITEA.

Tolosaldeko Landa Garapen Elkartek, "Tolomendi"k, 2008ko apirilaren 21ean Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2008 urterako elkartearen aurrekontua onartu zuen. Irurako Udala elkarte honetako partaidea da eta aipatutako banaketaren ondorioz, elkartearen funtzionamendurako, 2.844,39.- € ordaintzea egokitu zaio

Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Tolomendi elkarteari dagokion ekarpena egitea onartzen dute.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BOSGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, EUSKAL FONDOAREN KONPROMEZU EKONOMIKOAREN XEDE IZANGO DIREN EGITASMOAK AUKERATZEA.

Irurako Udala, Euskal Fondoa Elkarteko partaidea da. Elkarte honen helburu nagusiak nazioarteko garapen lankidetzan sustatu, lagundu eta koordinatzea dira, eta bereziki, Euskal tokiko erakunde eta instituzioek bultzatakoak; baita, herritarren partehartzea eta gizartean gai hauei buruzko gogoeta eragitea ere.

Elkarteak 2008rako adostu duen 2008ko jardueren planaren barne, ondoko esku-hartze ildo nagusiak agertzen dira:

- Esku-hartze lehentasuna duten herrialdeetako proiektuak: Nikaragua, Guatemala, El Salvador, Kuba eta RASD.
- Prestakuntza jarduerak eta partehartzea koordinazio sareetan.
- Euskal Autonomia Erkidegoan garatu beharreko sustapen-hedapen eta sentiberatze jarduerak, gastuetako kapitulu orokorrean adierazitakoak (aurrekontuan).

Guztia kontuan izanik, Euskal fondoak egiten dituen esku-hartze proposamenak ondorengoak dira:

Herria	Prozesua / Plana	Egitasmoa	Kopurua 2008 ²
ELS	Cuscatlánen erakundeak indartzea	Udalerrri bidezkoak eta demokratikoak eraikiz. IV. Fasea.	144.670,97
NIK	Somotoko udal garapena	1 (PANCASAN) eta 2. sektoreetako (Mauricio Cajina) hiri-saneamendu eta antolamendua.	303.729,63
	El Raman udan garapena	Itzuli beharreko mailegu Fondoa zabaltzea	82.712,90
	San Carloseko hirigintza garapena	Saneamendua (ur beltzak). 3. fasea	2.000,00
	Tipitapan udal garapena	Hondakin uren tratamendurako Zentralak eraikitzea	241.935,48
GUA	Fray Bartolomé de Las Casas udal garapena	Euri uren drainadura eta Oronte Centeno auzoko kale galtzada.	158.279,57
	Chahal-eko udal garapena	Hirigunearen 4,5 kilometroko kaleak birgaitzea.	168.747,31
KUB	Habana Zaharrean tokiko giza garapenerako programa	Soselá Chinayú II-n ponpaketa bidez ur edangarriaren sistema bat eraikitzea.	24.917,85
	Granma probintzian tokiko giza garapenerako programa	La Habana Hiriko Zentro Historikoko Hirugarren Adinekoen Gizarte Zerbitzuak laguntzea	207.230,11
SEAD	Garraio azpiegitura laguntzea	Bayamo hirian, El Valle herri kontseiluan sareak instalatzea eta ihesak saihestea.	49.627,96
		Komunitatearen eta Ortegako "ESBEC"-Ulises Góngora Guisaur hiriaren zerbitzua eta hornikuntza hobetzea.	35.586,30
	Saharako emakumeen nazio-batasuna indartzea - UNMS	Saharako kanpamenduetako garraio azpiegiturak. V. fasea	188.172,04
		Aaiungo Wilayan Emakumearen Etxea.	59.354,84

Aurrekoa ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Nikaraguako San Carloseko hirigintza garapenaren barnean, “saneamendua (ur beltzak)” izendaturiko egitasmoa aukeratzea.

Bigarrena.- Aukeratutako egitasmoa finantzatzeko, bi mila euroko (2.000.- €) dirulaguntza ematea, 2008ko aurrekontuetako 1.0000.481.450.00.00 partidaren kontura.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

SEIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, NEKAR TALDEAK EGINDAKO PROPOSAMENA.

Nekar taldea osatzen duten profesionalak autonomia - erkidegoko udalerrri askotako kaleen planoak egiten aritzen dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei eskaintzen dizkiete bere zerbitzu profesionalak eta, udalbatzen lankidetzarekin, herrietako ondare kultural eta historikoaren eta horietako jaien inguruko berri ematen duten planoak prestatzen dituzte. Plano horiek, ondoren, doan banatzen zaizkie herritarrei nahiz bisitariei. Hori guztia oso gaituta dauden giza baliabideen konbinazioak ahalbidetzen dute, guztiak batzen dituen enpresa-proiektuaren baitan.

14 urteko jardueraren ondoren, 2006ko Buber Saria eman diete, Euskadin garatutako tresna informatikorik onenari. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ia udalerrri guztietako kaleen planoak dituzte eta sektore honetan buru direla esan daiteke. Honetaz gain, probintzia mugakideetara —Errioxa, Nafarroa, Gaztela, Leon, Kantabria eta Asturiasera, besteak beste— zabaltzeko asmotan ere badira.

Proposatzen duten planoa dohainezkoa izango litzateke bai Udala eta baita herritarrentzat. Lan hau egiteko beharrezkoa duten diru iturria planoan bertan iragarriko diren enpresetatik lortzen dute. Iturri hauek lortzeko, hots, iragarri nahi duten enpresak lortzeko eta bertan aurkezteko, Udalak ekimen honi babesa ematea eskatzen dute.

Aurrekoa ikusirik, herriaren interes orokorrerako tresna baliagarria dela irudiz, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, **Nekar taldeak egindako proposamenari babesa** erakustea erabakitzen dute:

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

ZAZPIGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, UDAL LANGILEGOAREN BEHIN BEHINEKO ORDAINSARIEN IGOERA.

Aurtengoan, euskadiko toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioaren (Udalhitz) negoziazioa luzerako joango dela garbi dago.

Adostasuna berandutzeak, urte amaieran lan eskerga eta ahalegin ekonomiko handia suposatuko dio Udal honi lortuko den akordioa betetzea.

Aurrekoaz gain, azken aldian giro ekonomikoaren eraginez jasaten ari garen egoera kontuan hartuz, Udalhitzek baldintzak hobetzeko duen gaitasun eta joera kontuan hartuz, abenduaren 26ko 51/2007 Legeak, estatuko 2008. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak ezarritakoa ikusirik eta abenduaren 28ko 15/2007 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak ezarritakoa ikusirik, bi mila eta zortziko maiatzaren hogeitazazpian, 73/08 zenbakia duen erabakikuntza hartu zen alkatetza honek.

Honen bidez erabaki zen, Udal honetako langileen soldatak ehuneko lau

(%4) igotzea 2007koen aldean eta dagozkion atzerapenak egunean jartzea. Erabaki honek ez du eragozten gai honen inguruan hartu daitezkeen behin betiko akordioak.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela eta erabakia berresten duela.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

ZORTZIGARREN GAIA

GALDERAK ETA ESKAERAK.

8.1.- ONARTZEA, BADAGOKIO, LOATZO MUSIKA ESKOLA MANKOMUNITATEARI 2008AN EGIN BEHARREKO EKARPENAREN LEHENGO ZATIAREN ORDAINKETA.

Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko uztailaren 4an, Irura Udalerria Loatzo Musika Eskola Mankomunitatean bazkide gisa sartzeko proposamena onartu egin zuen.

Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak onartutako aurrekontuaren arabera, Irurako Udalari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 42.909,43.- €koa da. Bi epetan egingo da, lehenbiziko %50a ordaindu zen bere garaian eta orain gainontzekoa, hau da, 21.454,71.- €, ordaintzea dagokio Irurako Udalari.

Udalbatzak aho batez onartu du, Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak onartutako aurrekontu orokorraren arabera Irurako Udalak egin beharreko ekarpenaren lehengo zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

8.2.- ONARTZEA, BADAGOKIO, LURZORUAREN KALITATEARI BURUZKO ADIERAZPENAREN BEHARRA DAGOENEAN NOLA EGIN FINKATZEN DUEN ERIZPIDEA.

Otsailaren 4ko 1/2005 LEGEA, Lurzorua ez kutsatzeko eta Kutsatutakoa garbitzeari buruzkoak ezartzen duenez, kasu hauetan Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari (IHOBE) dagokio lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egitea:

- a) Kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat duen edo izan duen lurzorian jardueraren bat instalatu edo handitzen denean.
- b) Lurzorua kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat izan duen eta egun jardunik gabe dagoen kokapenen batean lurrak mugitzeko proiektuak gauzatzen direnean.
- c) Lurzorua kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat behin betiko bukatu edo ixten denean.
- d) Kutsa dezakeen jardueraren edo instalazioren bat duen edo izan duen lurzoruaren kalifikazioa aldatzen denean.
- e) Lurzoruaren jabe edo edukitzaile diren pertsona fisiko edo juridikoen kabuz, kutsa dezakeen jardueraren bat egiten denean.

Gainera, jardueraren bat instalatu edo handitzeko zein lurrak mugitzeko ahala ematen duten lizentziak, baimenak eta gainerako ebazpenak emateko, aldeztatik lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena egin behar du IHOBEk; horretarako, aipatutako lizentziak, baimenak edo ebazpenak eskatzeko asmoa duenak ingurumen-organoari jakinarazi behar dio bere asmo hori.

Guztiaren beharrak lanak atzeratzen ditu, IHOBEren txostenaren zain egon beharrak lanak atzeratzen ditu eta ezin da lizentziekin aurrera egin, gaia dagoen bezala gelditu beharra duelarik eta sustatzaileek inongo aurrera pausurik egin ez dezaketelarik.

Aurrekoa ikusirik, Udaltzarak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Sustatzaileen lana errazteko asmoz, baimen administratiboa ematea onartzea, baina baldintza guztiak bete artean, hau da, IHOBEn oniritzia lortu artean, baimen gehiago ez ematea.

Bigarrena.- Baimen hau ematerakoan, kasuan kasu argi utzi beharko da zenbaterainoko eskubidea ematen duen eta ezingo da ezer eraiki IHOBEn baiezkotz iritzia lortu artean.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

8.3.- ONARTZEA, BADAGOKIO, LOATZO MENDIGAINEN MAHAI PANORAMIKOA BERJARTZEKO AURREKONTUA.

Jakina denez, Loatzo gaineko mahai panoramikoak hautsita dago. Aurrekoetan egin den bezala, Loatzo mendia Irura eta Villabona artean kokatzen denez, Irurako Udalak kontratatuko du mahai panoramikoaren berriztapena, ordainketa aurreratu eta ondoren, Irurako Udalak, Villabonakoari likidatuko dio dagokiona.

Honenbestez, gai honetan eskarmentua duen Ikermap Ibaeta SL enpresari eskatu zaio aurrekontua. Honen arabera mila berrehun eta hirurogeita hamazortzi euro eta bederatzi zentimoko (BEZ barne) kostua izango du. Prezio horren barne egin beharreko lanak ondokoak izango dira: diseinu berria duen mahai panoramikoak jarri (altzari, binilo eta kristalez osatua), aurreko mahaiak kendu eta birziklatzera eraman. Garraioa eta jartzeko lanek eskatzen dituzten materialak ere barne izango dira.

Aurrekoa ikusirik, Udaltzarak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Ikermap Ibaeta SL enpresak egindako aurrekontua onartu eta honen

araberako lanak aurrera eramatea agintzea.

Bigarrena.- Lanak egin ondoren eta ordainketa egin denean, Villabonako Udalari dagokion zatiaren likidazioa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazio bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

8.4.- GARAGARDO FERIA.

Jakinarazten da eta guztien jakinaren gainean jarri, aurten Irurako Garagardoaren feria uztailaren 4, 5 eta 6 egunetan ospatuko dela.

8.5.- SAN MIGEL PLAZA 3KO BIZILAGUNEN ESKAERA.

San Migel plaza 3ko bi auzokide plenora etorri eta hitza ematen zaie kale horretako zaborren arazoari alde guztien artean adostutako irtenbide egokia aurkitu nahian. Beraiek diotenez gaur egun dauden tokia ez da egokia usainengatik eta garaje baten irteera zailtzen duelako.

Argi dago kamioiak eskuin aldetik jasotzen dituela zabor ontziak eta honek kokapena mugatu egiten duela. Hala ere, Jose Luis Olano Zubeldia zinegotziak proposatzen du Atari enpresaren ingurura aldatzea posible bada. Alkateak erantzuten du mankomunitatean galdetuko duela eta haiekin batera beste leku aproposago baten bilaketa egingo dutela.

Hala ere, auzokide hauen ustez bidearen beste aldera gurutzatu beharra ere ez da eroso baina bai hobea.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, 22:10etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.